

GUGGENHEIM BILBAO



2023KO JARDUEREN MEMORIA



GUGGENHEIM BILBAO

2023KO JARDUEREN MEMORIA

AURKEZPENA	4
ARTE-PROGRAMAZIOA	6
ESKURAKETAK	14
HEZKUNTZA ETA PROGRAMA PUBLIKOAK	18
BISITARIAK	28
COMMUNITY	30
BISITARIAK	34
AGERRALDIAK HEDABIDEETAN	40
NEURKETA DIGITALAK	41
DENDA-LIBURUDENDA	42
ARGITALPENAK	43
JASANGARRITASUNA	44
KUDEAKETA-EREDUA	45
PLAN ESTRATEGIKOA	46
SARIAK ETA ZIURTAGIRIAK	47
ERAGINA EAEKO EKONOMIAN	48
BISITAK	50
GUGGENHEIM BILBAO MUSEOAREN FUNDAZIOA	52

AURKEZPENA


JUAN IGNACIO VIDARTE, ZUZENDARI NAGUSIA

2023a emaitza bikainekin amaitu da. Aurtengo lorpenen artean, nabarmentzekoa da errekor historiko hau: 1.324.221 bisitari hartu ditu Museoak, eta zifra hori bat dator gure erakundeak, sortu zenetik, ezaugarri duen izaera irekiarekin eta ikuspegi unibertsalistarekin, publiko guztiei zuzendua. Gainera, aurten, atzeritik etorritako bisitarien ehunekoa berreskuratu dugu eta % 60 baino gehiago izan dira (aldagai horri pandemiaren ondorioak nabaritu izan zaizkio orain arte).

Gure programazio artistiko erakargarriak, berriro ere, pertsona ugari hurbildu ditu gure erakusketetara. Azken urte honetan erakusketa bana eskaini zaie XX. mendeko lau artista gaileni: Pablo Picassori, bere eskultore fazeta ezezagunenean; Joan Miróri, Parisen izan zuen sorkuntza-aldi bikaina (1920–1945) jasota; Oskar Kokoschka

margolari austriarrari, eta alemaniar jatorriko Gego eskultore venezuelarrari. Eta, gainera, garaikidetasunean ere murgildu ginen, Yayoi Kusama ospetsuaren, Lynette Yiadom-Boakye gaztearen, eta Film & Video gunerako Marine Hugonnierrek egindako proposamenaren bidez. Bestetik, *Guggenheim Bilbao Museoaren Bildumako artelanak* erakustaldiak gure funtsetako obra interesgarrienetako batzuk aurkeztu zizkion publikoari.

Aldi hau zehaztu duten datuen artean, era berean, nabarmentzekoa da Communityk izandako hazkundera. Museoaren komunitateak gero eta pertsona gehiago biltzen ditu artearen eta kulturaren inguruan, eta bere arrakastak agerian uzten du gizartearen aldetik jasotzen dugun babes handia —erakundearen ezaugarri sortu zenetik, bertoko testuingurutik nazioarteko esparrura



zabaltzen dena—. 2017an abiarazi genuen sare dinamiko horrek 270.000 kide inguru zituen 2023 amaieran, eta horien artean goraka jarraitzen du Museoaren Lagunen kolektiboak, ia 24.000 lagunek osatua. Gainera, urtearen balantzea egitean, hauek dira beste lorpen garrantzitsu batzuk: Denda-Liburudendak aparteko diru-sarrerak lortu ditu; gure webguneak hiru milioi bisita baino gehiago izan ditu, eta % 80 ingurukoa izan da 2023an lortutako autofinantzaketa-indizea. Eta emaitza horiei gehitu behar zaizkie jasotako aintzatespenak, ziurtagiriak eta sariak, besteak beste publikoaren Webby Award, Museoaren webgune berriari emana, erakunde kulturalen kategorian.

2023 ekitaldiko hezkuntza-jarduera berrien artean aipatzekoa da Wellbeing programa: ongizate indibidual handiagoa lortzeko artea integratzen duten ekimenak, arteak bizitzaren zentzuarekin konektatu eta lasaitasun- eta konexio-egoera ahalbidetzen duelako uste sendotik abiatuta, oso atsegingarria izateaz gainera. Arlo horretan, hainbat proposamen eskaini dizkiogu publikoari, tartean bisita kontzienteak, meditazio gidatuak eta yoga saioak, artelanak arreta osoz, kontenplazio isilean behatzen, eta

eragiten dizkiguten sentsazio eta ñabardura anitzetan sakontzen laguntzeko.

Azkenik, eta egungo gizartearen eskaera biziarekin bat etorritik, jasangarritasunari buruz hitz egin nahi nuke, kontuan hartuta aspaldidanik ari garela esparru horretan gure sentsibilitatea etengabe proiektatzen. 2023an, Gallery Climate Coalitionek, museoaren sektorean ingurumen-inpaktua murrizteko lan egiten duten artearen arloko erakundeen nazioarteko komunitateak, kide aktibo izendatu zuen Guggenheim Bilbao Museoa; lehena espainiar estatuan. Arlo horretan finkatu ditugun helburuen artean 2030erako klima-neutraltasuna lortzeko asmo handiko helburua dago. Bide horretan, ekitaldian zehar ekimenak gehitzen eta gure jardunerako modu jasangarriagoak ikertzen jarraitu dugu.

Pozik agurtzen dugu 2023: urte historikoa, Museora gure erakusketa-proposamenekin gozatzeraz jende gehien bertaratu den urtea, eta, gure borondaterik onenarekin, berriro ere, artearekin eta gizartearekin hartua dugun konpromisoa berriro dugun urtea.

ARTE-PROGRAMAZIOA



GUGGENHEIM BILBAO MUSEOAREN BILDUMAREN AURKEZPENAK



IZENBURUA: *Guggenheim Bilbao Museoren Bildumako artelanak*

DATAK: 2023ko urtarrilaren 24tik aurrera

ARETOAK: hirugarren solairua

KOMISARIOA: Lekha Hileman Waitoller

OBRA-KOPURUA: 63 artelan

BISITARI-KOPURUA: 1.291.125
[abenduak 31 arte]

bbk 




GAUR EGUNGO ARTEAREN OINARRIAK



IZENBURUA: Joan Miró. *Errealitate absolutua. Paris, 1920–1945*
DATAK: otsailak 10–maiatzak 28, 2023
ARETOA: 105
KOMISARIOA: Enrique Juncosa
OBRA-KOPURUA: 82
BISITARI-KOPURUA: 340.396



IZENBURUA: Picasso eskultore. *Materia eta gorputza*
DATAK: irailak 29, 2023–urtarrilak 14, 2024
ARETOAK: bigarren solairua
KOMISARIOA: Carmen Giménez Lucía Agirrearen parte-hartzearekin
EGOITZAK: Museo Picasso Málaga; Guggenheim Bilbao Museoa
OBRA-KOPURUA: 56
BISITARI-KOPURUA: 296.898
 [abendua 31 arte]



IZENBURUA: Oskar Kokoschka. *Vienako errebeldea*
DATAK: martxoak 17–irailak 3, 2023
ARETOAK: 205, 206, 207 eta 209
KOMISARIOAK: Dieter Buchhart eta Anna Karina Hofbauer
EGOITZAK: Musée d'Art Moderne de Paris; Guggenheim Bilbao Museoa
OBRA-KOPURUA: 122
BISITARI-KOPURUA: 782.333

Fundación
BBVA



GUGGENHEIM BILBAO MUSEOAK ANTOLATUTAKO ERAKUSKETA, MUSEO PICASSO MÁLAGAREKIN LANIKIDETZAN



PABLO PICASSOAREN HERIOTZAREN 50. URTEURRENA OSPATZEKO BATZORDE NAZIONALAREN LAGUNTZAREKIN MUSÉE NATIONAL PICASSO-PARIS MUSEOAREN APARTEKO LANIKIDETZAREKIN




ENPRESA LAGUNTZAILEA ESPAINIAN



XX. MENDEKO PASARTEAK




IZENBURUA: Yayoi Kusama:
1945etik gaurdaino
DATAK: ekainak 27–urriak 8, 2023
ARETOAK: 103, 105
KOMISARIOAK: Doryun Chong,
Mika Yoshitake eta Lucía Agirre
EGOITZAK: M+, Hong Kong;
Guggenheim Bilbao Museoa; Museu
de Arte Contemporânea de Serralves
OBRA-KOPURUA: 193
BISITARI-KOPURUA: 586.110



IZENBURUA: Gego. *Infinítua neurtzen*
DATAK: azaroak 7, 2023–otsailak 4, 2024
ARETOA: 105
KOMISARIOA: Geanine Gutierrez-Guimarães
EGOITZAK: Museu de Arte de São
Paulo Assis Chateaubriand–MASP;
Museo Jumex, Mexiko Hiria; Solomon
R. Guggenheim Museum, New York;
Guggenheim Bilbao Museoa
OBRA-KOPURUA: 148
BISITARI-KOPURUA: 141.663
[abenduak 31 arte]



GAUR EGUNGO ARTEAREN ZERTZELADAK



IZENBURUA: Lynette Yiadom-Boakye.
Halako ilunabar bizirik

DATAK: martxoak 31–irailak 10, 2023

ARETOAK: 202, 203, 204, 208

KOMISARIOA: Lekha Hileman Waitoller

OBRA-KOPURUA: 72

BISITARI-KOPURUA: 778.820



GAUR EGUNGO ARTEAREN ZERTZELADAK: FILM & VIDEO



IZENBURUA: Marine Hugonnier: *Landa-txostenak*

DATAK: urriak 27, 2023–urtarrilak 21, 2024

ARETOA: 103

KOMISARIOA: Manuel Cirauqui

OBRA-KOPURUA: 5

BISITARI-KOPURUA: 176.696 [abenduak 31 arte]



ESKURAKETAK



Thomas Struth

Publikoa, 08, 01, 03, 06 Florentzia 2004
(*Audience, 08, 01, 03, 06, Florenz 2004*), 2004
4 obra, koloretako inpresioa, 178 x 286 cm, ed.: 7/10;
178 x 286,5 cm, ed. 7/10; 178 x 297 cm, ed.: 7/10; eta
178 x 283,8 cm, ed.: 9/10, hurrenez hurren
Guggenheim Bilbao Museoa

Thomas Struth (Geldern, Alemania, 1954) figura gailenetako bat da gaur egungo panorama artistikoan, Bigarren Mundu Gerraren ondorengo argazkilari europar garrantzitsuenetakoa. Bere lanean, Struthek ez du egoera bat dokumentatzen; horren ordez, denbora moteltzen duen behaketa pausatutik abiatzen da begirada arretatsu batek bakarrik aurki ditzakeen ñabardura eta xehetasun bisual apartak atzemateko.

Struthen bilakaera artistikoa bere inguruko testuinguru sozialek markatu dute. Düsseldorfeko Arte Ederren Akademiako ikasle zela egindako lehen argazkiak, 1973–76koak, hiriko kaleetan atera zituen. Harrezkero, bere argazki-sailek agerian uzten dituzte egileak jorratzen dituen oso bestelako generoak, eta haien artean ezartzen dituen ustekabeko konexioak, argazkiak errebelatzen dituenean soilik agerian geratzen direnak.

1980ko hamarkadaren amaieran, Struth Erromara eta Napolira joan zen, eta lehen aldiz hasi zen pintura lantzen argazkilaritzaren bidez, bi diziplinak bat eginez eta

artearen zaharberritzaileak beren aztergaiekin konektatzen diren moduan zentratuz; horren erakusgarri dugu *Zaharberritzaileak San Lorenzo Maggiore* (*Restauratoren in San Lorenzo Maggiore*, Neapel, 1988). Argazki horrekin, nolabait, ikusleen eta artelaren arteko hartu-emana oso leku zehatz eta esanahiz betetakoetan jasotzeko halako behar bat agertzen hasten da. Hala, aurrerago, *Museoetako argazkiak* izeneko sail ezaguna hasi zuen. Argazki horietan publiko anonimoa agertzen da artearen historiako obra famatuak behatzen. Ondoren, Struthen perspektiba hori zabaldu eta artelan horiei begira ari direnen aurpegiarantz zuzentzen du kamera.

Bildumarako eskuratutako lau lanak *Publikoa, Florentzia 2004* sailekoak dira, Michelangeloren Daviden (1501–04) 500. urteurrenean sortuak. Struthen, astebetean lanean, maisulanari begira ari direnengana zuzentzen du kamera haien aurpegiera atzemateko. Flasharen argia erabiltzen du lehen aldiz, eta esposizio-denbora murrizten du, publikoan zentratuta eta inguratzen duen guztia murriztuta, topaketa horren unea erakusteko helburuz. Hau da Struthen arreta ikusleengan jartzen duen hiru sailetatik lehena. Argazki horien aurrean, kanpoko behatzaile gara gu, publikoen erreakzioak arakatzen; gizakien kaleidoskopio bat, maisulan baten aurrean nor bere erreakzioarekin eta bere gorputz-hizkuntzarekin ageri delarik.

Yayoi Kusama

Infinituaren isla-gela – Gizakientzako zorion-guraria, unibertsoaz haraindik igorria (Infinity Mirrored Room – A Wish for Human Happiness Calling from Beyond the Universe), 2020

Beira ispiluduna, zura, LED argi-sistema, metala eta panel akrilikoa, 293,7 × 417 × 417 cm, ed. 1/5 + A.P.
Guggenheim Bilbao Museoa

Yayoi Kusama (Matsumoto, Nagano, 1929) japoniar artista eta idazlea ahots berezi bat da, artearen historiak berreskuratu eta dagokion lekuan kokatu duena, ikono kultural global bihurtua. Azken zazpi hamarkadetan, Kusamak tinko eutsi dio bere ikuspegi abangoardistari, eta bere bizi-filosofia jasotzen duen estetika pertsonala biribiltzen jardun du. Sorkuntza garaikidearen aitzindari eta figura nabarmena da; gizartea aldatzeko bitarteko gisa ulertzen du artea, eta performancea, pintura, marrazkia, eskultura, literatura eta murgiltze-instalazio ezagunak, *Infinituaren isla-gelak*, erabiltzen ditu horretarako.

Kusamak loreki zabalen artean bizi izan zuen haurtzaroa. Hala ere, AEBra hegazkinez egin zuen lehen bidaian Ozeano Barearen ikuspegia izan zen bere *Infinitu-sareak (Infinity Nets)* ezagunen inspirazio-iturria. Margolan horietan zirkuluerdi txikiak obsesiboki estaltzen dute mihisea, eta sareen eta konektatutako puntuen patroia espresionista bat sortzen dute. Margolan horien ondoren, collageetan eta patroia errepikakorren eskultura bigunetan berrerabilitako materialen metaketaz baliatu zen Kusama. Joera obsesibo/konpulsiboa edo errepikatze berezko irrika baino gehiago, metaketak, Kusamarentzat, bere ikuspegi sortzailea hedatzeko nahi bizia adierazten du. Obra horietan, eguneroko elementuak, esaterako aulki bat, eraldatu egiten ditu protuberantzia ugariz estalita, objektua bera eta bere funtzioa desagerraraziz.

1963an New Yorken egindako erakusketa batean, Kusamak arraun-txalupa bat aurkeztu zuen, ehunka protuberantziaren azpian lurperatua; aretoko hormak eta sabaia paper pintatu beltzez estalita zeuden, eta bertan behin eta berriro errepikatzen zen txaluparen irudi zuria, patroia gisa. Bi urte geroago, Kusamak bere lehenengo isla-gela izango zena egin zuen, *Infinituaren isla-gela – Zakil-soroa (Infinity Mirror Room – Phalli's Field, 1965)*. Lan horretan, ehundaka elementu bigunek, artistaren tanto bereizgarri gorriez blaitutako oihal zuri batez

eginak, ispiluen bidez biderkatutako espazio txiki baten zoru osoa hartzen zuten. 1991n, Kusamak berriro heldu zien infinituaren isla-gelei; orain arte hogeita hamar bat egin ditu, batzuk edizio bakarreko formatuan eta beste batzuk edizio anitz baina mugatuan.

Guggenheim Bilbao Museoren Bildumarako eskuratutako obra, *Infinituaren isla-gela – Gizakientzako zorion-guraria, unibertsoaz haraindik igorria (Infinity Mirrored Room – A Wish for Human Happiness Calling from Beyond the Universe, 2020)*, artistak egindako azkenetako bat da, laurogeita hamar urteak beteak dituenean sortua. Lan horrekin, Kusamak esperientzia murgiltzaile batean barneratzen gaitu berriro: bere unibertso obsesiboaren partaide egiten gaitu, eta “auto-obliterazio” beharra transmititzen digu: bizitasun handiko koloretako argi-joko batean desagertzera gonbidatzen gaitu, gela infinitu horretako ispiluzko hormetan argiak mugarik gabe ugaltu bitartean.



Lynette Yiadom-Boakye

Abuztuko distira (An August Brightening), 2022

Olio-pintura mihise gainean, 130 × 200 cm
Guggenheim Bilbao Museoa

Lynette Yiadom-Boakye, 1977an Londresen jaiotako ghanar jatorriko artista, ezaguna da bere margolan hunkigarri eta iradokitzaileengatik. Lan horietan pertsonaia denboragabeak ageri dira eguneroko egoeratan, alaitasuna, adiskidetasuna eta baita bakardadea ere aditzera emanez. Bere praktikan pintura eta idazketa barne hartzen ditu, eta bi baliabideekin fikziozko istorioak ehotzen ditu, besteak beste sentimenduei, identitateari eta adierazpen figuratiboaren sotiltasunei buruzko gaiak hartzeko. Artistak irudimenean duen horretatik abiatuta margotzen du, hau da, ez ditu zuzeneko modeloak erabiltzen, eta horrek errealitatea eta fikzioa uztartzea ahalbidetzen dio. Eta, era berean, bere lanarekin maila pertsonal batean erlazioatzera gonbidatzen du publikoa. Ikuspegi berritzaile horrek erretratu tradizionalaren konbentzioak gainditzen ditu, eta, aldi berean, ingurunearen potentzial politiko eta poetikoa aztertzen du.

Abuztuko distira (An August Brightening, 2022)
pintura Yiadom-Boakyeren lanaren erakusgarri da,

bikain islatzen baitu bizitasun handiko ikonografia eta korrante emozional konplexu eta sorrak uztartzeko duen trebetasuna. Margolan horrek hiru gizon aurkezten ditu giro intimu eta ambiguo batean. Erdiko irudia bere dantza murgilduta dagoen bitartean, beste batek gitarra jotzen du eta hirugarren batek isilik begiratzen du. Kolorearen erabilerak pertsonaia dinamikoek zuzentzen die arreta, alegia, argitasuna harrapatu eta mugimendua indartzen duen urre-koloreko hondo baten aurrean kokatuta dauden horiei; argi-itzalen jokoak sakontasuna eta bizitasuna gehitzen dizkio multzoari. Narratibaren ambiguitasunak figuren artean zabaltzen diren erlazioak ikustera gonbidatzen gaitu, eta eszenarekin lotura pertsonal bat ezartzeko bidea irekitzen du.

Yiadom-Boakyek saihestu egiten du testuinguruko xehetasun espezifikoak erabiltzea, irudiak leku edo denbora jakin batean kokatzen dituztelako. Horren ordez, koloreak eta formak emozioak pizteko duten ahalmenaz baliatzen da ikusleekin sakonetik konektatzen duten aldarteak iradokitzeke. Zuzeneko marrazkia eta pintura aztertuz urteetan lantzen aritu den metodoa antzekotasun hutsetik askoz harago doa, giza esperientziaren esentzia jasotzeko helburuz.

HEZKUNTZA ETA PROGRAMA PUBLIKOAK

BITARTEKARITZA

Audientzia zabal eta askotariko batengana zuzentzea da Museoaren zereginetako bat. Hala, publikoari artea eta ordezkatzeko dituen balioak sakonagoz ezagutu eta gozatzeko, Museoaren erakusketa bakoitzean Didaktika gune bat gehitzen da —berdinik ez duen ekimena arte garaikideko museoaren artean— bisitaren prestaketa eta esperientzia maximizatzeko eta programazio artistikoaren inguruko ikuspegiak zabaltzeko eta dibertsifikatzeko diseinatua. Erakusketa-aretoen osagarri diren espazioetan eta Museoaren webgunean eskaintzen da EDP Fundazioaren babesari esker.



Bisita autogestionatu bat egin nahi duten bisitariarentzat, berriz, Museoak ibilbide autonomo bat egiteko bestelako tresna, euskarri eta material batzuk jartzen ditu eskura eta, aldi berean, ikusgai dauden obrak eta eraikinaren arkitektura hobeto ulertzen eta gozatzeko laguntzen duten gakoak eskaintzen ditu. Bestetik, gailu mugikorretan deskarga daitezkeen entzuteko gida bat du helduentzat eta familientzat. Entzuteko gidak Euskaltelen babesari du.

Irisgarritasuna ahalbidetzeko asmoz, iraunaldi desberdinetako bisita gidatuak antolatzen dira, aukera ematen dutenak arkitekturaren eta eraikinaren elementu nagusietara, Museoaren Bildumara eta ikusgai dauden erakusketetara hurbiltzeko. Horretarako, Museoak berak prestatutako profesional baten eskutik eta harekin solasaldian, hautatutako edukiak azaltzen zaizkie bertaratuak. Jarduera hori Petronor enpresak babesten du.

	Programak	Jarduerak	Hartzaileak 2023-1-1/12-31
Gune didaktikoak [Didaktika]	1	8	997.710
Gidaridun bisitaldiak	5	1.919	27.594
Bisitaldi laburrak	1	58	427
Entzuteko gidak	1	13	155.059
Artea ikasbide erakusketa	1	1	62.226

ESKOLA-EREMUA

Ikasleak

Museoak konpromisoa hartzen du bere edukietarako sarbidea bermatzeko, bereziki gazteei eta haurrei, beren eskola-prestakuntzaren osagarri gisa. Hala, hurbiletik lan egiten du irakasleekin eta ikastetxeekin, ikasleen beharrei erantzun egiten bitartekotza-moduak, tresnak eta jarduerak eskainiz. Museora egiten duten bisita, ikasteko aukera ez ezik, Bildumak eta erakusketek eskola adineko ikasleei piz diezaiekeen sormenaren eta inspirazioaren bidez sozializatzeko eta deskubritzeko aukera ere bada.

Eskola-eremuan aldi baterako erakusketa bakoitzerako eta Guggenheim Bilbao Museoaren Bildumarako bisitak eta tailerrak diseinatu dira. Ikastetxeentzat eskuragarri daude, bai presentzialki, eskola-irteera bat antolatuta Museoan ezagutzeko eta erakusketa-esperientziaz gozatu eta eraikinaren arkitektura berezian murgiltzeko, bai bisita birtualen bidez, lekualdatu beharrik gabe erakusketen edukiak ikasgelara eramateko. Bisita birtualak ingelesez eskaintzen dira BHI eta Batxilergoko ikasleentzat haien ikasgaiari egokituak edukiarekin. Era berean, ibilbide autogestionatuak egiteko aukera dago Museoan beren erritmoan bisitatu nahi duten ikastetxeentzat, beren ibilbideak diseinatuak.

Gainera, *Artea ikasbide* programak zeharkako proiektuak garatzen ditu ikastetxeetan, diziplina anitzeko ikuspegiarekin eskolako ikasgaiak ikasteko lagungarri gisa ez ezik, bertako artisten eskutik errealitatea ezagutzeko eta esploratzeko tresna gisa arteaz baliatuz.

Irakasleak

Irakasleak hezkuntza-komunitatearen ezinbesteko parte dira eta Museoak haien artean bereziki diseinatutako jarduerak programatzen ditu, bai euren ikasgeletara eramanez artearen eta Museoan erakusketen ezagutza zabaltzeko, bai sormenari lotutako material eta tresna berriak ezagutarazteko, eskola-curriculumaren zeharkako hezkuntza-elementu gisa erabili ahal izateko.

Doan eskaintzen diren orientazio-saioek eta jardunaldiek aukera ematen diete irakasleei Museoan bertaratzeko, erakusketak eta eskura jartzen zaizkien baliabideak ezagutzeko, ikasle-taldeekin egingo duten bisita aldeztu aurretik eta Museoan profesionalen laguntzarekin prestatu ahal izan dezaten. Gainera, online egiten diren hitzaldi-tailerrek gai eta ideia berriak eskaintzen dituzte, artea eta sormena eskola-komunitatearentzat eta, zehazki, Hezitzaileen Community-ko kideentzat garrantzitsuak diren gaurkotasuneko beste gai batzuekin lotzen dituztenak. Kidego hori 2021ean eratu zuen Museoak, bere Jarraitzaileen komunitatearen barruan irakasleentzako kolektibo espezifikoak, interes bereziko talde horrekin harreman hurbilagoa eta zuzenagoa izatea helburu.

Ikasleentzako eta irakasleentzako jarduerak Occident etxeak babesten ditu.

	Programak	Jarduerak	Hartzaileak 2023-1-1/12-31
Ikasleak-aurrez aurre	4	1.035	23.188
Ikasleak-online	1	1	9
Artea ikasbide	1	121	141
Hezitzaileak	3	25	790
Hezitzaileak-online	1	2	39
Hezitzaileen Community	1	1	3.437

PROGRAMA PUBLIKOAK

Guggenheim Bilbao Museoak artearen eta bere balioen bidez inspiratzeko eta ikuspegi berriak zabaltzeko duen asmoa publiko, familia eta heldu guztiei zuzendutako era guztietako jarduera zeharkako eta tematiko ugartan islatzen da.

2023an zehar jorratu diren gaien artean, emakume artisten balioespena, jasangarritasuna eta horrek eguneroko bizitzan duen presentzia, Wellbeing programa berriaren bitartez ongizate emozionala bultzatzea nabarmentzen dira. Azken programa hori 2023an hasi zen TotalEnergies-en babesarekin, eta bere helburua gizartearen eta Museoaren ikusleen ongizate fisiko eta emozionalari laguntzea da, Museoak artearen, hezkuntzaren eta berrikuntzaren balio sozialarekiko dituen konpromisoen esparruan. Programako jarduerak modu bideratuan burutzen dira, artearekiko lotura landuz, eta lasaitasuna sustatzen dute erritmo geldoagoa ezarriz.

Familiak

Museoak haurrei eta haien senitartekoei artea esploratzeko eta ezagutzeko aukera ematen dieten jarduerak eta tailerrak eskaintzen ditu adin talde ezberdinentzat bereziki diseinatutako sormen esperientzien bidez. Askotariko diziplinak barneratzen dituzte jarduerok: marrazketa, arkitektura, plastika, yoga edo ipuinak kasu, publiko gazteenari aurkikuntza eta inspirazio iturri ugari eskaintzeko helburuarekin. Familiarentzako asteburuko jarduera eta tailerrez gain, nola diren *Marrazten ikasiz*, *Abentura artistikoak*, *Books Alive!* edo *Baby Art* eta *Sormen-laborategia*, Museoak udako eta Gabonetako jarduerak ere programatzen ditu, aukera bat eskainiz haurrek eta familiek sormena esploratzeko eta trebetasun eta baliabide berriak

aurkitzeko. Jarduera horietan, tailerrak ematen dituzten artisten laguntza izaten dute parte-hartzaileek, haiekin zuzenean elkarrekintzan aritzeko eta bertako komunitate artistikoarekin hartu-emanen ikasteko aukera izan dezaten. Familiarentzako programak ITP Aero enpresak babesten ditu.

Helduak

Aldi baterako erakusketen eta Bilduma Iraunkorraren gaiekin lotutako aurkezpen, solasaldi, tailer, ikastaro eta hitzaldiek, baita arte eszenikoekin eta biziekiko oro har lotutako beste batzuek ere, profil eta interes desberdineko helduei zuzendutako eskaintza presentzial joria eta askotarikoa osatzen dute. Hala, programa publikoaren proposamenaren osagarri, TopARTE lankidetzaren bidez, tokiko kultur erakundeek beren jarduerak Museoan aurkezten dituzte.



GIZARTE-PROGRAMAK

BBK-k babesten dituen Guggenheim Bilbao Museoaren gizarte-programen helburua artea denei hurbiltzea da, bazterketarik gabe. Erakundeak xedatuta dauka artearen eta bere balioen bidez ikuspegi berriak sortzeko eta zabaltzeko asmoa, eta tokiko gizarte-erakundeak artea eta sormena euren jardunean sartzera gonbidatzen ditu ongizate handiagoa, gaitasunen garapena eta gizarte-konexioa sustatzeko modu gisa, haien onuradunei zein familiei mesede egiten dielarik. Testuinguru horretan Museoak tokiko gizarte-erakundeekin eta helburu terapeutikoak dituztenekin lankidetzan jardun ohi du, artearen onurak eta arteak ongizateari egiten dion ekarpena zaurgarriak diren kolektibo eta pertsonen helarazteko, haien erresilientzia eta integrazioa sustatuz.

Izaera sozial nabarmena duten jarduerak jarraipena izan dute aurten, besteak beste, *Sendatu eta sortu* izenekoak, ospitaleratutako haurrentzat antolatzen dena Gurutzetako eta Basurtuko ospitaleekin lankidetzan; baita nahasmendu psikiatrikoak dituzten haur, nerabe eta helduei arreta integrala ematen dieten erakundeekin lankidetzan antolatutakoak ere. Era berean, formatu berriak jarri dira abian, hala nola Museoaren bisita osatzera bideratutako bisita-tailerrak, non parte-hartzaileen premietara egokitutako sormenezko jarduerak antolatzen diren. Bestetik, hainbat ibilbide gidatu antolatu dira oraingoan ere desgaitasuna duten pertsonentzat eta/edo premia bereziak dituztenentzat nahiz kolektibo zaurgarrietako kideentzat.

	Programak	Jarduerak	Hartzaileak 2023-1-1/12-31
Familiak	12	337	7.049
Museoaren Lagunak eta publiko orokorra	7	90	5.397
TopARTE	1	34	7.210

	Programak	Jarduerak	Hartzaileak 2023-1-1/12-31
Gizarte-programak	3	152	441
Gidaridun bisitaldi irisgarriak	4	169	2.683

PRESTAKUNTZA-PROGRAMAK

Kudeaketa Akordioa berritzearen ondorioz, prestakuntzaren arloan zenbait ekimen eta ekintza eraman dira aurrera nazioartean, besteak beste New Yorkeko Solomon R. Guggenheim Museumeko artistentzako egoitza-programak eta euskal ikasleentzako beka-programak.

	Hartzaileak 2023-1-1/12-31
Euskal ikasleentzako beka	4
Artistentzako egoitza-programak	3

ONLINE BALIABIDEAK

Hezkuntza-edukien irisgarritasuna bermatzeko asmoz, Museoan bertan nahiz modu birtualean online eskaintzen diren jarduera eta material didaktikoak garatzen dira hezitzaileentzat, familientzat eta publiko orokorarentzat. Eduki horiek askotariko jarduerak barne hartzen dituzte: hezitzaileentzat propio diseinatutako tailerrak; Museoa ezagutzeko eduki eta ikuspegi anitzeko ibilbideak (adinarekin arabera sailkatuak); Sway aplikazioarekin egindako gida didaktikoak eraikinari, Museoaren Bildumari eta aldi baterako erakusketei buruzkoak; edo *Ba al zenekien...?* izeneko atal didaktikoa webgunean.

Baliabide horiek guztiek Museoaren arte-programazioari lotutako ikaskuntza- eta irakaskuntza-prozesuetara hurbiltzea errazten dute ikasgeletan eta etxeetan, museo-esparrutik kanpo. Era berean, helduentzako online arte-ikastaroen eskaintza sendotu da "ikasi zure erritmoan" formatuari esker, artean modu malguan, atseginean eta zorrotzasunez trebatzeko interesa duen publikoarentzat guztiz egokia baita.

	Programak	Jarduerak	Onuradunak 2023-1-1/12-31
Ikasi online	1	60	12.348
Familientzako plano-gida	1	1	2.078
Gida didaktikoak	1	158	116.307
<i>Artea ikasbide bilatzailea</i>	1	1	14.529
Didaktika <i>Ba al zenekien?</i>	1	9	22.523
<i>Guggenheim Together</i>	1	1	147
Ibilbideak	1	12	113.529



JARDUERA AIPAGARRIAK

Urtarrila

- Kontzertua, Berlingo Orkestra Filarmonikoa – zuzendaria: Daniel Barenboim [TOPARTE]
- Sormen-saioa [+18]: *Biomaterial berriak* (saio bikoitza) *Sekzioak/Intersekzioak* erakusketaren harira
- Basque Culinary Center elkarrizketa: *Gastronomia eta arte performatiboak* [TOPARTE]
- Opera-proiektzioa, Teatro Real: *Partenope*
- Let's go to the movies: *Camelot*

Otsaila

- Aurkezpen-hitzaldia: Joan Miró. *Errealitate absolutua. Paris 1920–1945* – hizlaria: Enrique Juncosa
- Kontzertua, Berlingo Orkestra Filarmonikoa – zuzendaria: Kirill Petrenko [TOPARTE]
- Ikastaroa: Artea ezagutzen VI (I, II, III saioak)
- Arte-arduraren ikuspegia: Joan Miró. *Errealitate absolutua. Paris, 1920–1945*
- Online arte-ikastaroa: *Arte garaikidearen egiturak*
- Proiektzioak: Silver Film Festival (4 saio) [TOPARTE]
- Sormen-saioa [+18]: perkusio-tailerra David Moliner-ekin *Sekzioak/Intersekzioak* erakusketaren harira
- Perkusio-errezitala: David Moliner (bi saio)
- Let's go to the movies: *EVE*
- Opera-proiektzioa, Teatro Realen artxiboak: *Rusalka*
- Funtsezko kontzeptuak: Joan Miró. *Errealitate absolutua. Paris, 1920–1945*

Martxoa

- Kontzertua, Berlingo Orkestra Filarmonikoa – zuzendaria: Paavo Järvi [TOPARTE]
- Ikastaroa: Artea ezagutzen VI (IV saioa)
- Piano-errezitala: *La rotonda* (Emakumeen Nazioarteko Eguna)
- Aurkezpen-hitzaldia: Oskar Kokoschka – hizlariak: Dieter Buchhart eta Anna Karina Hofbauer
- Ikastaroa: Artea ezagutzen VI. III modulua



- Sormen-prozesua, BOS: Musika eta antzerkiaren arteko elkarrizketak [TOPARTE]
- Arte-arduraren ikuspegia: Oskar Kokoschka. *Vienako errebeldea*
- Sormen-saioa: *Ibilbide eta tailer biomimetikoa* [+18] (Zuhaitzaren Munduko Eguna eta Basoen Nazioarteko Eguna)
- Loraldia festibala: POPPERRA, AFTERRA, UTOPIA [TOPARTE]
- Aurkezpen-hitzaldia: Lynette Yiadom-Boakye. *Halako ilunabar bizirik* – hizlariak: Lekha Hileman Waitoller eta Lynette Yiadom-Boakye
- Let's go to the movies: *The Palace*
- Funtsezko kontzeptuak: Oskar Kokoschka. *Vienako errebeldea*
- Opera-proiektzioa, Teatro Realen artxiboak: *Turandot*

Apirila

- Trazos: Joan Miró dokumentalen proiektzioa
- Online ikastaroa: Gorputza eta identitatea arte garaikidean
- Sormen-saioa [+18]: *Lurraren koloreak* (Lurraren Munduko Eguna)
- Arte-arduraren ikuspegia: Lynette Yiadom-Boakye. *Halako ilunabar bizirik*

- Sormen-saioa [+18]: *Ilustrazio-tailerra* – Joan Miró
- Bisitaldi performatiboa: Inesa Markava – Joan Miró
- Kontzertua, Berlingo Orkestra Filarmonikoa – zuzendaria: Klaus Makela [TOPARTE]
- Funtsezko kontzeptuak: Lynette Yiadom-Boakye. *Halako ilunabar bizirik*
- Let's go to the movies: *Blackthorn*
- Online sormen-tailerra: *Pedagogia, artea eta arkitektura*
- Gaikako bisitaldia: *Vienako zirkulua eta Kokoschka garaiko musika*
- Opera-proiektzioa, Teatro Realen artxiboak: *Dead Man Walking*

Maiatza

- Kontzertua, Berlingo Orkestra Filarmonikoa: “Europa” – zuzendaria: Kirill Petrenko [TOPARTE]
- Gaikako bisitaldia: *Vienako zirkulua eta Kokoschka garaiko musika*
- Musika-performancea: *Resonant Sculpture Project*, Bilduman inspiratutako esku-hartzeak
- Zinema-arratsaldeak Museoa: Lynette Yiadom-Boakye
- Piano-errezitala: Koki Nakano
- Yoko Onoren *Bilborako nahien zuhaitza* abian Museoen Nazioarteko Eguna dela-eta
- Wellbeing: Yoga integrala [+18]
- Proiektzioa: *Kokoschka, oeuvre-vie*
- Let's go to the movies: *Samaritan*

Ekaina

- Yoga integrala [+15]
- Gaikako bisitaldia: *Vienako zirkulua eta Kokoschka garaiko musika*
- Wellbeing bisitaldia: *Begirada barez* [+18]
- Funtsezko kontzeptuak: *Artea ikasbide*
- Aurkezpen-hitzaldia: *Yayoi Kusama*
- Zinegoak festibala 2023 [TOPARTE]

Uztaila

- Wellbeing hizketaldiak: María Blasco, Ikerketa Onkologikoen Zentro Nazionala (CNIO)
- Arte-arduraren ikuspegia: *Yayoi Kusama*
- Opera-proiektzioa, Teatro Realen artxiabok: *Turandot*
- Funtsezko kontzeptuak: *Yayoi Kusama*
- Danza en el camino [TOPARTE]
- Kontzertua, Bilbao Blues Festival [TOPARTE]
- Kontzertu pedagogikoa, Bilbao Blues Festival [TOPARTE]

Abuztua

- Kontzertu klasikoa: York Bowen jaialdia [TOPARTE]
- Works & Process at the Guggenheim: Courtney "Balenciaga" Washington's Masterz
- Yoko Onoren *Bilborako nahien zuhaitza* abian Aste Nagusia dela-eta

Iraila

- Bilboko Anime Festibala [TOPARTE]
- Lucinda Childsekin topaketa & performancea
- Kontzertua, Berlingo Orkestra Filarmonikoa – zuzendaria: Herbert Blomstedt [TOPARTE]
- Fair Saturday: Bilbao Social Forum [TOPARTE]
- Aurkezpen-hitzaldia: *Picasso eskultore. Materia eta gorputza*

Urria

- Yoga integrala [+15]
- Online arte-ikastaroa: *Eskultura garaikidea*
- Proiektzioa: *Kusama Infinity*
- Wellbeing bisitaldiak: Begirada barez [+18]
- Arte-arduraren ikuspegia: *Picasso eskultore. Materia eta gorputza*
- *Drawing the Guggenheim*
- Zinema Ikusezinaren Jaialdia: Film Sozialak [TOPARTE]
- Ikastaroa: Artea ezagutzen VII
- Aurkezpen-hitzaldia: *Marine Hugonnier*
- Funtsezko kontzeptuak: *Picasso eskultore. Materia eta gorputza*
- Kontzertua, Berlingo Orkestra Filarmonikoa – zuzendaria: Riccardo Minasi [TOPARTE]
- Hitzaldia: *Ai Futaki: Itsaso eta ozeanoekin batera existituz*



Azaroa

- Aurkezpen-hitzaldia: *Gego. Infinitua neurtzen*
- Online ikastaroa: Arte moderno eta garaikideko materialek kontatzen dutena
- Kontzertua, Berlingo Orkestra Filarmonikoa – zuzendaria: Kirill Petrenko [TOPARTE]
- Z ostiralak: Gazteentzako arkitektura-tailerrak/Gego
- Yoga integrala [+15]
- Arte-arduraren ikuspegia: *Gego. Infinitua neurtzen*
- Wellbeing bisitaldiak: Begirada barez [+18]
- Ibilbide berriak erakusketetan barrena: *Picasso eskultore. Materia eta gorputza*
- Z ostiralak: Gazteentzako arkitektura-tailerrak/Gego
- Dantzaldia festibala: *Tríptico #1 Estévez/Paños y Compañía* [TOPARTE]
- Zinebi65 proiektzioak: *Anselm Kiefer* [TOPARTE]




- Online sormen-tailerra: *Pedagogia, artea eta arkitektura*
- Funtsezko kontzeptuak: *Gego. Infinitua neurtzen*
- Sormen-saioa[+18]: *Idazketa-tailerra Picassoren erara*
- Zinebi65 proiektzioak: *Ohorezko Mikeldi sariduna 2023* [TOPARTE]
- MEM jaialdia, 22. edizioa [TOPARTE]
- Z ostiralak: Gazteentzako arkitektura-tailerrak/Gego
- Sormen-saioa[+18]: *3D zeramika-inprimaketa tailerra Picasso*
- Bilboko Akordeoi Orkestra Sinfonikoaren kontzertua [TOPARTE]
- Z ostiralak: Musika-tailerra eta DJa
- Proiektzioa eta solasaldia: Fair Saturday [TOPARTE]
- KURAIA jaialdia: *Gyorgy Ligeti* [TOPARTE]
- Online sormen-tailerra: *Sormena, arreta eta adeitasuna*
- Bisita birtuala: *Emakumeak ere sortzaile*

Abendua

- Zinetika festibala: Performancea, Vera Mantero [TOPARTE]
- Zinetika festibala: bideodantza proiektzioak [TOPARTE]
- Picasso dantzan
- Yoga integrala [+15]
- Hitzaldia: *Antoni Tàpies eta bere objektuak*
- Ibilbide berriak erakusketetan barrena: Gego
- Kontzertua, Berlingo Orkestra Filarmonikoa – zuzendaria: Daniel Barenboim [TOPARTE]
- Zinetiki Zinemaldia [TOPARTE]
- Haurrentzako ikuskizuna: *Isiltasunaren pintorea*
- Z ostiralak: musika-tailerra eta emanaldia /Northwest
- Yoko Onoren *Bilborako nahien zuhaitza* abian

BISITARIAK

BILAKAERA HILABETEKA ETA ASTEKA




2023an 1.324.221 bisitari izan zituen Museoak, ekitaldirako aurrekontuan jasotakoa baino % 39,4 gehiago, eta 2022an baino % 3 gehiago, erakundearen historiako bisitari erregistrarik onena izanik. Jendearen bertaratze-kurba aurreko urtekoa baino handiagoa izan zen une oro, azaroan izan ezik; izan ere, hilabete hori euskal herritarrei zuzendutako BBKArtea kanpainak markatu zuen 2022an, 25. urteurrena zela eta.


2023ko maiatza, uztaila, abuztua eta iraila onenak izan ziren Museoaren historian; batez beste 6.186 bisitari egun bakoitzeko uztailean eta abuztuan.

JATORRIA

BISITARIEN JATORRI GEOGRAFIKOA:



ATZERRIKO BISITARIEN JATORRI GEOGRAFIKOA:



2023an zehar berreskuratuz joan da atzerriko bisitarien ehunekoa; 2022an metatutakoa baino 10 puntu handiagoa izan da mundu-mailan ikusten diren aisialdi-eta bidaia-joera berrien ondorioz.

COMMUNITY

Communityk, Museoaren artearen eta kulturaren inguruko komunitateak, Lagunak, Jarraitzaileak eta ERDU programaren onuradunak biltzen ditu, besteak beste, eta gora egiten jarraitzen du, 268.000 lagunetik gora baitaude bertan izen emanda. Horrek esan nahi du Communityko kide kopurua 75.500 pertsonatik gora hazi dela 2023an, aurreko urtearekin alderatuta.

Kategoriak	2023-12-31
Ikaslea	3.256
Erretiratuak	7.151
Banakakoa	5.506
Familiak	7.288
Erakunde kolaboratzaileko Laguna	162
Nazioarteko Kideak	140
Ohorezko Kideak	31
LAGUNAK DENETARA	23.534
Erdu	548
Jarraitzaileak	244.015
COMMUNITY DENETARA	268.097



COMMUNITYREN ALDERDI AIPAGARRIAK LAGUNENTZAT



- Doako bisitak erakusketetara: Aurten, 6.000 plaza baino gehiago eskaini dira euskaraz eta gaztelaniaz, baita jasangarritasuneko bisita gidatuak ere, Museoaren Lagunentzako Egurenaren barruan.
- Lagunartean: 200 plaza Lagunentzat antolatutako jarduera honetan. Aldi baterako erakusketa baten bisita gidatua eta Tabernan edo Bistróan eskainitako proposamen gastronomikoa uztartzen ditu.
- *Matinéak eta Soiréak*: Erakusketen komisarioekin topaketak inaugurazioen aurretik, Nazioarteko eta Ohorezko Kideei eskainiak otsailaren 7an eta 8an, martxoaren 14an, 15ean, 28an eta 29an, ekainaren 26an, irailaren 27an eta azaroaren 3an, 400 lagunentzako partaidetzarekin.
- Ohorezko Kideen bilera Madrilen ARCO zela-eta, otsailaren 22an, eta Bilbon, Urteko Afariarekin eta *Gego. Infinitua neurtzen* erakusketaren inaugurazioarekin bat etorritik, azaroaren 6an.



- Bidaiak eta txangoak: Bartzelona eta inguruak, martxoaren 16tik 19ra, Eusebio Díaz-Morera eta Marta Ventós ohorezko kideek gonbidatuta, Joan Miróren inspirazio-lekuak bisitatzeko; Amsterdam, maiatzaren 12tik 16ra, besteak beste Vermeerri eskainitako erakusketa handia bisitatzeko; Hego Korea, irailaren 1etik 9ra, Frieze Seoul eta Kiaf hitzorduak aprobetxatuz; eta Valladolid eta Extremadura, azaroaren 16tik 19ra.
- Webguneko eremu pribatua indartu egin zen Lagunentzako eduki eksklusiboekin, besteak beste: Gegoren erakusketaren komisarioaren aurkezpena eta online bisita, online deskargak, berriak eta sustapen-kodeak kolaborazioak izaten ditugun Ifemako hainbat ekitalditara doako sarbidea izateko (ARCO, Antik Passion Antigüedades, Feriarte, etab.) eta erakusketen inaugurazioko koktelera bertaratzeko zozketen emaitzak ezagutzera emateko.
- Kolaborazioak ARCO, Antik Passion Antigüedades, Feriarte eta FIG Bilbao azokekin, besteak beste, Lagunei ekitaldi horietan zuzenean eta doan sartzeko aukera eman dietenak; deskontuak Bilbao Orkestra Sinfonikoarekin (BOS), Arriaga Antzokiarekin eta BBKLiverekin adostutako ikuskizunetarako.

COMMUNITYREN ALDERDI AIPAGARRIAK JARRAITZAILEENTZAT



- 2023an 75.518 jarraitzaile berri erregistratu ziren. Erakartzeko tresna nagusia online izan zen, jarduerak saltzeko plataforma aprobetxatuz (% 45), webgunearen edo buletin digitalen bidez (% 3) edo wifi mugagabea erabiltzearen onuraren bidez (% 50).
- Lagunen alden % 10,48 Communityren jarraitzaileenak izan ziren, eta Museoarekiko konpromisoa indartu zen horrela.
- Urtean zehar, 4.060.051 eNews bidalketa egin ziren, jarduerari, erakusketari, proiektu berriei, sustapenei edo eduki kuratorialari buruzko informazioarekin, batez beste % 45,2ko irekitzeekin eta % 4,8ko klikekin. Ekitaldia amaitu artean egindako eNews bidalketek 78.975 bisita eragin zituzten webgunera: saioko 4 min 20 s iraupena, batez beste, eta saioko 4,87 orrialde ikusita, batez beste.
- Marketin-kanpainak diseinatu ziren Denda-Liburudendaren inguruan, Lagun txartela oparitzeko edo Jarraitzaileen *upgradingera* zuzenduak; Museoaren Lagunei eta Jarraitzaileei eskerrak emateko iragarki bat ere argitaratu zen.

KIDE KORPORATIBOAK



Fundazioak babestu zuen babesle bakar gisa; eta Iberdrola izan zen *Yayoi Kusama: 1945etik gaurdaino* erakusketaren babesle. Erakusketa horren harira, Iberdrolaren laguntzari esker, Museoako urmaelak eta Iberdrola dorrearen oinarria kolore gorriko 400 tanto famatu baino gehiagorekin jantzi ahal izan ziren artista japoniarraren obra omentzeko.

Bestalde, *Gego. Infinitua neurtzen* erakusketa Museoaren babesle Occident-ek babestu zuen, eta Picassoren eskultura-lanari eskainitako erakusketak ere, haren heriotzaren 50. urteurrena ospatzeko ekitaldien barruan, babes instituzional handia izan zuen.

2023an, *Artea ikasbide* programak 25 urte bete zituen eta, BBKren babesari esker, urte horietan guztietan 3.700 ikaslek baino gehiagok hezkuntza-curriculumeko ikasgaiak indartu ahal izan dituzte, arteak eskaintzen dituen bide berrien esplorazioaren eta sormenaren bidez.

Azkenik, 2023an, Plan Estrategikoaren ekimenei lotuta, Patronatuko kideei proiektu individual bat esleitzeari ekin zitzaion, Museoaren eguneroko bizitzan duten parte-hartzea ikusaraztea errazteko, taula honetan ageri den bezala.

Guggenheim Bilbao Museoak erakundearen finantzaketan funtsezko zutabea diren 121 Kide Korporatiboren babesari jaso zuen 2023an. Enpresa horiek Museoarekin duten konpromisoa harreman egonkor eta iraunkorren erakusgarri da, eta haien diru-ekarpenak zati nabarmen bat dira Museoaren kudeaketa-eredua berresten duen urteko aurrekontuan.

Museoaren 25. urteurrenaren urteak (2022) aukera berezia adierazi bazuen ere enpresen babes gehigarrietarako, 2023an, Kide Korporatiboen mailari eustea lortu zuen Museoak, hamahiru kide berri gehitu izanari esker.

2023an, Museoaren hiru Babesle Estrategikoek mezenasgoa eskaini zioten programazio artistikoari. Hala, *Guggenheim Bilbao Museoaren Bildumako artelanak* BBKren babesarekin egin zen; *Oskar Kokoschka. Vienako errebeldea* BBVA





ERAKUSKETA ETA JARDUEREN BABESLETZA

Erakusketa	Babesleak	Laguntzaileak
<i>Guggenheim Bilbao Museoaren Bildumako artelanak</i>	BBK	
<i>Oskar Kokoschka. Vienako errebeldea</i>	BBVA Fundazioa	
<i>Yayoi Kusama: 1945etik gaurdaino</i>	Iberdrola	
<i>Picasso eskultore. Materia eta gorputza</i>		AC/E eta Telefónica
<i>Gego. Infinitua neurtzen</i>	Occident	
<i>Artea ikasbide</i>	BBK	

Patronatuko kideen proiektuak	Babesleak	Laguntzaileak
<i>Gogoeta partekatuak programa</i>	Fundación Vizcaína Aguirre	
Bisitariantzako zerbitzuak	Prosegur	
Entzuteko gida	Euskaltel	
Didaktika	Fundación EDP	
Ikasle eta irakasleentzako jarduerak	Occident	
Familientzako jarduerak	ITP Aero	
Bisita gidatuak	Petronor	
Wellbeing	TotalEnergies	

Jarduerak	Babesleak	Laguntzaileak
Gizarte-programak	BBK	
Jarduera publikoak eta hezkuntza-jarduerak <i>Picasso eskultore. Materia eta gorputza</i>		AC/E eta Telefónica
<i>Street marketing ekintza:</i> <i>Yayoi Kusama: 1945etik gaurdaino</i>	Iberdrola	
Urteko afaria	IXO grupo	Bodegas de los Herederos del Marqués de Riscal, Campillo, illycaffè
Koktela: <i>Joan Miró. Errealitate absolutua. Paris, 1920–1945</i>		El Águila
Koktela: <i>Lynette Yiadom-Boakye. Halako ilunabar bizirik</i>		Bodegas de los Herederos del Marqués de Riscal





EKITALDI BEREZIAK

2023an zehar, ekitaldi berezien inguruko jardueraren joerak positiboa izaten jarraitu du. Enpresen eta erakundeen 127 topaketa izan dira bertan, zifra handiagoa bere aurreko ekitaldiko emaitzak bikoiztu zituen 2022koaren aldean. Enpresa gehiago Kide Korporatiboen programan sartu izanari esker, gainera, ekitaldi gehiago egin dira bertan, besteak beste ABBk antolatutako afaria.

Programako hainbat kidek Museoan konfiantza izaten jarraitu dute beren ekitaldi nabarmenenak antolatzeko orduan: Surne-k eta Cofares-ek urtero egiten dute bertan akziodunen batzarra; BBVA Fundazioak Museoan ematen die ongietorria Ezagutzaren Mugak sarien irabazleei; ITP Aero-k urtero antolatzen du bertan lehen hezkuntzako ikasleei zuzendutako STEM jardunaldia; Saldu-k WITH (Women in Tech) Gala antolatzen du Museoan, eta Caixabankek, COPEK eta Empresa XXIek bertan banatzen dituzte beren sariak. Era berean, Telvak Museoan eman zituen Euskal Herriko Enpresari Onenen Sariak.

Bestetik, erakunde publikoek bultzatutako ekitaldi handiak, besteak beste Food 4 Future azoka edo ORP (Occupational Risk Prevention) Nazioarteko Fundazioaren Kongresua, Museora ere ekarri ziren, eta Atrioan egin zituzten beren ekitaldietako batzuk. Era berean, 2023an, Frantziako Tourrak bere irteera Bilbotik egitea programatu zuen, eta lasterketaren antolatzaileekin batera erakundeek eskainitako afaria Museoan bertan egin zen.

Azkenik, erakunde publiko edo irabazi-asmorik gabeko erakunde askok Museoa aukeratu dute garrantzi handiko ekitaldien egoitza izateko, tartean Anesvad eta Fair Saturday-k, zeinek Museoan egin baitzuten beren sari-banaketa; Kolonbiako Kontsulatuak Entzungelatan ospatu zuen bere egun nazionala; eta Austriako Turismo erakundeak tokiko touroperadore eta agentziei bertan aurkeztu zien bere eskaintza. Nazioarteko izen handiko hainbat erakunde ere Museoa aukeratu zuten beren ekitaldien egoitza izateko, besteak beste hauek: Kanadako Pierre Elliott Trudeau Foundation, Linux Foundation, Global Shapers, eta Europar Batasuneko presidentetza.

EKITALDIAK

	Alokairuak	Museoaren erabilerak	Erabilerak guztira
Entzungela	40	76	116
Atondoa	16	0	16
Atrioa	38	13	51
Beste batzuk	33	166	199
GUZTIRA	127	255	382



AGERRALDIAK HEDABIDEETAN

2023an Guggenheim Bilbao Museoa 23.311 albistetan agertu zen eta 96.361.823 eurotan baloratu da bere inpaktu ekonomikoa, aurreko urtean baino % 46,4 gehiago. Bestetik, erregistratutako albisteei esker, 10.048.094.053 pertsonako audientzia lortu zuen (2022an baino % 58 gehiago). Datu horiek KANTAREk egindako txosten batekoak dira.

Prentsan argitaratutako museoaren berri-kopuruaren arabera rankingean, Guggenheim Bilbao da Frantzia eta Alemanian inpaktu gehien lortzen duen estatuko museoa, Prado museoaren aurretik. Estatuko hedabideetan izandako inpaktuei dagokionez, Guggenheim Bilbao Museoa laugarren postuan dago, Prado Museoaren, Reina Sofíaren eta Thyssen-Bornemiszenaren atzetik.

Oro har, Museoaren programazio artistikoak 4.267 albiste bildu zituen estatuan eta nazioartean. *Picasso eskultore*. *Materia eta gorputza* erakusketak lortu zuen estaldura handiena: 1.426 inpaktu eta 6.678.085 euroko balorazio ekonomikoa. Gainerako erakustaldiei dagozkien datuak honakoak dira: *Yayoi Kusama: 1945etik gaurdaino*, 9.973.597 eurotan baloratutako 824 albiste; *Oskar Kokoschka*:

Vienako errebeldea, 409 inpaktu, 3.630.931 euroren baliokide; *Joan Miró. Errealitate absolutua. Paris, 1920 – 1945*, 381 albiste, gutxi gorabehera 3.244.360 eurotan baloratutako inpaktuarekin; *Gego. Infinitua neurtzen*, 2.770.024 euroko balioa duten 261 albiste; eta *Lynette Yiadom-Boakye. Halako ilunabar bizirik*, 248 berri, 2.068.855 eurotan kalkulatuak.

Pablo Picassoren heriotzaren 50. urteurrena gogora ekartzen zuen erakusketaren oihartzun handiaz gain, albiste-bolumenari dagokionez, Frantziako Tourra Bilbotik irten izana nabarmentzen da, Ambient Marketing erakundearen ekintzarekin bat eginez. Ekintza horren bidez, Museoko urmaelak zirkulu gorri ziren, garai hartan ikusgai zegoen Yayoi Kusama artistaren omenez. Titular ugari bildu zituen, bestetik, Urdaibaiko Biosfera Erreserban Museoa handitzeko aukeraren inguruko eztabaidak.

Gainera, Museoaren webguneak 3.218.545 bisita izan zituen eta sare sozialek euren komunitatea eta eragina handitzen jarraitu zuten, 841.767 jarraitzaileekin Instagramen (2022an baino % 6 gehiago), 385.313 jarraitzaileekin Facebooken eta 369.204 jarraitzaileekin X-n, biak aurreko urtearen ildotik.



NEURKETA DIGITALAK

WEBGUNEAK



	Erabiltzaileak 2023-12-31
Bisitak	3.262.138
Mugikorra: % 68,32	2.228.751
Ordenagailua: % 30,12	982.529
Tableta: % 1,56	50.818
Ikusitako orrialdeak	13.009.908
Bisiten batez besteko iraupena	04:00

X (TWITTER OHIA)



	Erabiltzaileak 2023-12-31
Jarraitzaileak	369.204
Gogokoenak	35.603
Birtxioak	4.242
Balitzko agerraldiak	1.910.274

FACEBOOK



	Erabiltzaileak 2023-12-31
Fansak	385.313
Atsegin dut	180.253
Iruzkinak	6.765
Helmena	10.710.257

INSTAGRAM



	Erabiltzaileak 2023-12-31
Jarraitzaileak	841.767
Atsegin dut	1.037.131
Iruzkinak	16.434
Helmena	22.536.427

DENDA-LIBURUDENDA



Denda-Liburudendari dagokionez, 2023a urte historikoa izan da. Aparteko emaitzak jaso dira, erregistratutako bisitari kopuruarekin eta garatutako erakusketa-programazio interesgarriarekin bat etorritik. Horrek aukera eman zigun bezeroentzat oso erakargarriak izan ziren aldi baterako erakusketetan oinarritutako produktu-sorta eskusibo bat salgai jartzeko, bereziki *Guggenheim Bilbao Museoaren Bildumako artelanak*, *Yayoi Kusama: 1945etik gaurdaino* eta *Gego. Infinitua neurtzen* erakusketen inguruan. Gainera, azken urte honetan lan handia egin da online salmentei buruzko guztian, bai urtaroen araberrako web kanpaina garrantzitsuen bidez, bai sare sozialetan edukiak sortuz, asteko *postak*, gaikako kanpainak eta Denda-Liburudendako artikuluen zozketak



barne. Horregatik guztiagatik, kanpo-salmentaren bolumenari eta bezero kopuruari buruzko atal honetan ere ezarritako helburuak gaititu dira.

Azkenik, eta Museoaren Ingurumen Jasangarritasuneko Planaren testuinguruan, 2023an Denda-Liburudendan salgai zeuden produktu jasangarrien inbentarioa egin zen, eta metrika bat sortu zen, urtero salgai horien eta katalogoaren arteko proportzioaren hazkundera neurtzeko, azken hau Museoak ezarritako helburuetara egokitzeko.

ARGITALPENAK



2023an zehar, erakusketen katalogotan, 1.500 orri inguru argitaratu zituen Museoak euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez.

- *Joan Miró. Errealitate absolutua. Paris, 1920-1945* erakusketaren katalogoa, jatorrizko edizio elebiduna gaztelaniaz eta euskaraz, 180 orri.
- *Oskar Kokoschka: Vienako errebeldea* erakusketaren katalogoa, edizio elebiduna gaztelaniaz eta euskaraz, 280 orri.
- *Lynette Yadom-Boakye. Halako ilunabar bizirik* erakusketaren katalogoa, jatorrizko edizioa hirueleduna, gaztelaniaz, ingelesez eta euskaraz, 160 orri.

- *Yayoi Kusama: 1945etik gaurdaino* erakusketaren katalogoa, edizio elebiduna gaztelaniaz eta euskaraz, 284 orri.
- *Picasso eskultore. Materia eta gorputza* erakusketaren katalogoa, jatorrizko bi edizio, bata elebiduna gaztelaniaz eta euskaraz, eta bestea ingelesez, guztira 312 orri.
- *Gego. Infinitua neurtzen* erakusketaren katalogoa, edizio elebiduna gaztelaniaz eta euskaraz, 232 orri.
- Gainera, Museoaren 2022ko Jardueren Memoria argitaratu zen euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez webgunearen bitartez.
- Azkenik, arte moderno eta garaikidearen inguruko dokumentazioaren euskarazko Artitz biltegia eguneratu zen; 2023aren amaieran 5.000 erregistro baino gehiago zituen.

JASANGARRITASUNA

Guggenheim Bilbao Museoak ingurumena babesteko konpromiso sendoa du. Hala, garapen jasangarriaren printzipioen arabera gauzatzen du bere jarduerak. Alde horretatik, Museoak hartutako neurriak bere jarduerak ingurumenean duen inpaktua minimizatzen bideratuta daude, horrela natura kontserbatzen lagundu eta ekofizientziara bideratutako jarduerak sustatzeko, hau da, baliabideei ahalik eta etekinik handiena ateratzea ahalik eta inpaktu txikiarekin. 2030erako klima-neutraltasunerantz aurrera egiteko konpromisoari eutsiz, Museoak ahalegin handiak egiten ditu trantsizio ekologikoan oinarritutako teknologiak eta metodoak ezartzen, energiaren eta lehengaien kontsumoak murrizten, zirkulartasun-proiektuak garatzen, eta bisitariak eta komunitatea sentsibilizatzen lagunduko duten edukiak eta programak sortzen.

Horrela, 2023ko Ingurumen Jasangarritasuneko Ekintza Plana 40 proiektu baino gehiagoren inguruan antolatu zen. Horien artean nabarmentzekoak dira Museoako biltegiatze-instalazioetan instalazio fotovoltaikoa abian jarri izana, erakusketa-guneetan kontrol klimatiko parametro berriak finkatu izana (gasaren kontsumoa % 35 eta kontsumo elektrikoa % 6 inguru murriztea ekarri dute) eta aldi baterako erakusketen museografiara eta logistikara bideratutako material eta prozesu ekologikoagoak ikertu eta probatzea. Azkenik, adierazi behar da Museoak 2.561,84 tonako karbono-aztarna utzi zuela 2023ko ekitaldian, hau da, % 12 murriztu zen 2019–22 aldiko urteko neurketen batez bestekoa.



KUDEAKETA-EREDUA

Guggenheim Bilbao Museoa erreferentziatzeko erakunde bihurtzen duen alderdietako bat bere eredu operatibo berezia da, izaera mistokoa, publiko/pribatua batzen dituen. Jardutako eskema horrek diru-sarreraren iturrien eta autofinantzaketa-indize altuaren arteko oreka du jasangarritasunaren berme gisa, eta indize hori iraunkor mantendu da bere ibilbidean zehar, % 70 inguruko mailan.

Museoaren diru-sarrerak, batez ere, hiru iturritatik datoz, antzeko portzentajeetan: bisitarien sortutakoak (sarrerak, Denda-Liburudenda, jatetxea, etab.); Banakako Kideak,

Kide Korporatiboak eta babesleak; eta, hirugarrenik, erakundearen finantzaketa.

2023an, Museoaren jardunari egindako ekarpen publikoak 7.289.500 eurokoak izan ziren, Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak eginak. Azken erakunde horrekin hitzarmen bat sinatu zen 2023ko otsailaren 1ean, dirulaguntza hori emateko modua arautzeko.



Erakundeak	2023
Bizkaiko Foru Aldundia / Diputación Foral de Bizkaia	3.519.750
Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco	3.519.750
Bilboko Udala / Ayuntamiento de Bilbao	250.000

PLAN ESTRATEGIKOA

Guggenheim Bilbao Museoa inauguratu zenetik garatu duen plangintza estrategikoarekiko konpromisoaren ildotik, 2023ko abenduan, Batzorde Betearazleak eta Patronatuak 2024–2025 Plan Estrategikoa onartu zuten.

Testuinguru globalean izaten ari diren aldaketa eta gertaeren abiadura bizkorak eragindako ziurgabetasun-maila handiaren aurrean, Plan berriak bi urteko iraupena izatea planteatu zen. Horrela, Museoaren ohiko planifikazio estrategikoaren aldia (4–5 urtekoa) osatu egingo da, 2020an pandemiak sortutako ezegonkortasunaren ondorioz laburtzea erabaki baitzen.

2024–2025 Plan berria lantzeko honako ekintza hauek burutu dira: elkarrizketak zuzendaritza-taldearekin; lan-saioak Museoaren Patronatuarekin; testuinguruaren eta datozen urteetan markatuko dituzten joeren ebaluazioa museoaren sektorearen alderdi espezifikotik zein errealitate globalaren gaitetan; eta Museoak epe ertainean aurre egin beharko dien erronka estrategikoen identifikazioa. Azterketa horretatik abiatuta, Plana formulatzeko funtsezkoak izango diren esparruak definitu ziren, eta Asmoa, Zeregina eta Engaiamendu Estrategikoak berrikusi ziren, egungo testuinguruan baliozkoak direla eta indarrean daudela ziurtatzeko.

Hausnarketa horren ondorioz, hamabi helburu estrategiko ezarri dira datozen bi urteetarako:

- Bilduma Propioa, Museoaren gune aktibo gisa.
- Erakusketa-programazio bikaina eta kalitatezkoa, ikus-entzule zabal eta askotarikoari zuzendua.
- Community 2.0: segmentazioa eta pertsonalizazioa.
- Lagunen programa eta tokiko posizionamendua indartzea.
- Eduki garrantzitsuak sortzea, ikuspegi eta bokazio teknologiko eta guzti.
- Museoak beharrezko prozesuak eta tresnak izatea, erakundearen eskura dauden informazioa eta baliabideak modu ireki eta arinean partekatzea.
- Talentu gaztea erakartzeko plana.
- Finantza-iraunkortasuna: diru-sarrera propioen ehunekoari eustea.
- Babesletzak handitu ahal izateko proiektu erlazionalak garatzea.
- Ingurumen-arloko iraunkortasuna: klima-neutraltasunerantz 2030ean.
- Gizarte-iraunkortasuna: ongizate emozionala artearen bidez.
- AEII – Aniztasuna, Ekitatea, Irisgarritasuna, Inklusioa.

SARIAK ETA ZIURTAGIRIAK

Guggenheim Bilbao Museoa, bere ibilbidearen hasieratik, konpromiso sendoa hartua du kudeaketaren kalitate-estandar gorenekin, ingurunean erreferente izateko asmoarekin. Etengabeko hobekuntzaren bila, aitzindaria izan da kudeaketa bikaintasuna bermatzen duten sistemak eta metodoak aplikatzen eta, horretarako, erakundearen jardunaren hainbat alderdi aztertu dituzten kanpo-auditoriak egin ditu. Testuinguru horretan, Museoak ziurtagiri hauek lortu edo berriitu ditu 2023an, eta honako aintzatespen hauek ere jaso ditu:

- Zerbitzu Kartaren ziurtagiria, kudeaketa-sistema UNE 93200:2008 arauarekin bat datorrela aitortu eta erakusteko.
- Ekitaldi jasangarrien kudeaketa-sistema (ISO 20121:2013)
- Ingurumen-kudeaketa (ISO 14.001)
- Irisgarritasun unibertsala (UNE 170.001)
- Compliance Penalaren kudeaketa-sistemaren ziurtagiria (UNE 19.601: 2017)
- EFR (1000-2 ziurtagiria)
- Más talento senior bereizgarria, MASTALENTOSENIOR kudeaketa-ereduaren 1. edizioaren arabera (ES-11/2023)
- Erakunde osasungarriaren kudeaketa-sistemaren adostasun-ziurtagiria (ES-2022/0001)
- Museoak. Bisita-zerbitzua emateko baldintzak (UNE 302002:2018)

Sariak

Webby Award saria, erakunde kulturalen webgune onenen kategorian, herritarren botoari esker. Nazioarteko sari horiek, Interneteko Oscar saritzat hartuak, proiektu digital onenei ematen dizkie urtero Arte eta Zientzia Digitalen Nazioarteko Akademiak (International Academy of Digital Arts and Sciences).

Amerikako Arkitektoen Institutuaren (American Institute of Architects - AIA) Hogeita Bost Urte saria, “azken 25 urteetan aurrekari bat ezarri duen eta bere diseinu arkitektonikoagatik eta bere garrantziagatik bikaintasun-estandarrak finkatzen jarraitzen duen eraikinari” emana.

ERAGINA EAEKO EKONOMIAN



Guggenheim Bilbao Museoaren 2023ko jardunak inguruan duen eragin ekonomikoari buruzko datuak aurreko urtekoak baino hobeak izan ziren. Azterketaren ondorioak hauek izan ziren:

- Museoaren 2023ko jarduerak, guztira, 759,7 miloi euroko eskaria sortu zuen.
- Bere jardueraren bidez, Museoak 657,1 miloi euroko BPG sortzen lagundu zuen.

- 103,1 miloi euroko diru-sarrera gehigarriak eragin zituen jarduera horrek Euskal Ogasun Publikoetan.
- Urtean, 13.903 lanpostu mantendu ahal izan ziren Museoaren jardunari esker.

2023 urtean ere, Guggenheim Bilbao Museoak autofinantzaketa-mailari dagokionean liderra izaten jarraitu zuen Europako kultura-erakundeen artean, % 78,6 ingurukoa izan baitzen.



BISITAK



JAPONIAKO ENBAXADOREA



AI FUTAKI



JESSICA CHASTEIN



DANIEL LISMORE



TXILEKO ENBAXADOREA



KATSUYUKI ICHIMI



ALEMANIAKO ENBAXADOREA



PILAR LLOP



MIQUEL ICETA



HANS ZIMMER-EN TALDEA

Guggenheim Bilbao Museoa, Kanpo Harremanak sailaren bitartez, artea eta kultura, politika, enpresa edo ikuskizuna bezalako arlo anitzetako pertsona ospetsuen bisitak koordinatzeaz arduratzen da.

2023an 135 bisita hartu ziren, aurreko urtean baino gehiago; horrek pandemiaren ondoren normaltasunera itzuli izana islatzen du.

Bisitarien artean aipatzekoak dira, politikaren mundutik, besteak beste, Pilar Llop Justizia ministroa eta Miquel Iceta Kultura ministroa, Rolando Diez Paraguaiko Lehiaren Batzorde Nazionalako presidentea, eta Irene Velez Kolonbiako Meatze eta Energia ministroa. Ekonomia eta enpresaren mundutik, besteak beste,

Juan Carlos Escotet ABANCAko presidentea, Bizkaia Energiako Administrazio Kontseiluko kideak eta Jean Paul Claverie LVMHko presidentearen aholkulari artistikoa. Kultur erakundeen aldetik, Dora Llamas ICOM Espainako presidentea, Henry Tang West Kowlooneko Kultur Barrutiko presidentea eta Javier Ferrer Malagako Carmen Thyssen Museoko gerentea besteak beste. Azkenik, zientzia, arte, letra eta zinemako ordezkarien artean, Olga Toarkczuk idazlea (2018ko Literatura Nobel sariduna), Özlem Türeci zientzialari immunologoa, John Banville idazlea, Jessica Chastain aktorea, Michel Franco zinema-zuzendaria eta Miquel Barceló eta Julian Schnabel artistak.

GUGGENHEIM BILBAO MUSEOAREN FUNDAZIOA

BABESLE FUNDATZAILEAK

Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco
Bizkaiko Foru Aldundia -
Diputación Foral de Bizkaia
The Solomon R.
Guggenheim Foundation

BABESLE ESTRATEGIKOAK

BBK
Iberdrola
Fundación BBVA

BABESLEAK

Bilboko Udala -
Ayuntamiento de Bilbao
Fundación Vizcaína Aguirre
El Correo
ITP Aero
Euskaltel
Petronor
Deia - Grupo Noticias
Occident
Bolsa de Bilbao (BME)
Fundación "la Caixa"
EITB
Fundación EDP
Metro Bilbao
Serveo
Prosegur
TotalEnergies

ENPRESA ONGILEAK

SPRI-Agencia Vasca de
Desarrollo Empresarial
IDOM
illycaffè
Bahía de Bizkaia Gas
Bahía de Bizkaia Electricidad
Castleton
Aceros Inoxidables Olarra
SURNE, Seguros & Pensiones
Christie's
Telefónica
Iberia
Sotheby's
RKL Integral
Allianz

HEDABIDE KOLABORATZAILEAK

Deia
El Correo
Diario ABC
Diario Vasco
Diario Montañés
Diario La Rioja
Norte de Castilla
Expansión
El Mundo
Cadena Ser
masdearte.com
Gara
Ronda Iberia
Estrategia Empresarial
La Ría del Ocio
Empresa XXI
COPE
El País
SPEND IN Magazine
Sundance TV
Odisea
berria
Revista Interiores
Radio Popular de Bilbao Herri Irratia
RTVE
Kiss FM
Clear Channel

ENPRESA ELKARTUAK

Kereon Partners
Viviendas de Vizcaya
Productos de Fundación, S.A.
Cámara Comercio Bilbao -
Bilboko Merkataritza Ganbera
Cuatrecasas
Giroa - Veolia
Autoridad Portuaria de Bilbao
Velatia
Barceló Bilbao Nervión
IXO grupo
Bodegas de los Herederos del
Marqués de Riscal
Hotel Abando
Hotel Carlton
Mercure Bilbao Jardines de Albia
Hotel Miró
Consorcio de Transportes de Bizkaia
Accenture
Gran Hotel Domine
Randstad España
Grupo Erhardt
López de Heredia Viña Tondonia
Universidad de Deusto
PQC
Hotel Conde Duque Bilbao
Smurfit Kappa Nervión
Heineken España
Fundación Tubacex
Fundación Banco Sabadell
DOMINION
IMQ
LIN3S
Formica
Deloitte

Estudios Durero
Corporación Mondragon
Uría Menéndez
PKF Attest
Grupo Cofares
Bodegas Campillo
Kurago
AIC - Automotive Intelligence
Center
Radisson Collection Bilbao
Tecnalia
IMAP Albia Capital
Architecture MasterPrize
IE Foundation
Grupo ULMA
ABB
Erakus
Bilakatu
Caser Grupo Helvetia
Pablo Melendo Fine Art Consulting
Howden
Arinzano
Brunello Cucinelli
Pinturas JUNO

OHOREZKO KIDEAK

José Antonio Ardanza
Pilar Aresti
Rafael Orbegozo
María Colmenero
Guillermo Caballero de Luján
Mario Fernández
M^a de los Ángeles Aristrain
José Antonio Isusi
José María Juncadella
Alejandro Aznar
Josu Bergara
Alfonso Basagoiti
Guillermo Barandiarán
Heinrich Wicke
Bartolomé Fierro
Fernando Rodés
Patricia Zugaza
Gonzalo Corcóstegui
Ana San José
Emilio Ferré
Eusebio Díaz-Morera
Santiago Ybarra
Alberto Delclaux
Diana Abedrop
Álvaro Aresti
José Antonio Jainaga
María Sáinz de Vicuña
Isabel Lipperheide Aguirre
Aurèlia Carulla Font
Fernando García Macua
Carlos Alzola Oriol
Tatiana Salomon Abedrop

ABENDUAK 31, 2023

GUGGENHEIM BILBAO